


Mikroekonomia

EAZ Gradua: 2. ikasturtea (1. lauhilekoa)

Azterketak (2021-2022)

Ekonomia eta Enpresa fakultatea, Donostia
EHU-UPV



Egilea: Beñat Zunzunegi



Gizapedia

gizapedia.hirusta.io

MIKROEKONOMIA (2. ZATIA: 3, 4 eta 5 gaiak)

2022ko urtarrilak 21. 10:00

Iraupena: 60min

1. ariketa: 3 puntu

Monopolio-lehiako egiturako merkatu batean, saltzaile baten kostuak eta eskaria ondokoak dira: $KT = 4Q^2 + 200Q + 18.000$ eta $D : P^d = 100(400 - n) - 16Q$ (n aldagaiak enpresa kopurua adierazten du. Bi dezimal erabili.

- (a) Kalkulatu epe luzeko soluzioa (P eta Q) eta mozkinak (π). Zenbat enpresa egongo dira industrian?
- (b) Kalkulatu ezberdintze-kostua eta gehiegizko ekoizpen ahalmena.
- (c) Grafikoki azaldu epe luzeko oreka: D , KMa , SMa eta BKT azaldu eta LM soluzioa adierazi.

2. ariketa: 3 puntu

Merkatu bat hornitzen bi saltzaile daude. Merkatu eskaria $D : P = 800 - 4Q$ da. Kostu-funtzioak honakoak dira: $KT_1 = Q_1^2 + 200Q_1$ eta $KT_2 = 4Q_2^2 + 20Q_2$ (oharra: $Q = Q_1 + Q_2$). Bi dezimal erabili.

- (a) Cournot-en soluzioa eta mozkinak.
- (b) Kolusioaren soluzioak eta mozkinak.

3. ariketa: 2.50 puntu

Zubikao eta Sorokao enpresen estrategiak eta mozkinak ondoko irabazi-matrizean jasotzen dira. Enpresa bakoitzak 4 edo 6 euroko prezioa finkatu behar duen erabaki behar du.

- (a) Aztertu estrategia dominatzaileak.
- (b) Aurrekoaren arabera, zein probabilitate gehieneko soluzioa. Nash-en oreka al da?
- (b) Zein da soluzio hoberena? Nash-en oreka al da?

4. ariketa: 0.75 puntu

Stackleberg lider-jarraitzaile ereduan, zein izaten dira liderraren ezaugarriak? Bestela esanda, zeintzu ezaugarriek esker izaten da lider enpresa liderra?

5. ariketa: 0.75 puntu

Bertrand-en eredua

- (a) Zein dira Bertrand-en ereduaren ezaugarriak?
- (b) Nolako dinamika sortzen da lehiatzaileen artean?
- (b) Zein da emaitza finala?